

Literaturarekin bakarrik ikasten dena*

Garai nahasiotan, gure burua galdurik sentitzen dugunean ere, literaturak koordenada batzuk ematen dizkigu beti. Anne Frankek oso garbi esan zuen: “Pertsona askeak nekez jabetuko dira inoiz liburuek zer esanahi duten giltzapean bizi garenontzat”. Ispilu aurrean jarri eta galdera egiten digu literaturak: Aske al gara?

Zerbait gertatzen da zure gorputzean Homero irakurtzen duzunean. Aspaldiko egia batek astindu, eta begiak zabaltzen dizkizu. Ulises bihurtzen zara Troiako zaldiaren barruan. “Klasiko batek sekula ez du agortzen esan beharrekoa”, idatzi zuen Italo Calvinok. Klasikoek etorkizuneko esperientziari forma bat ematen diotela ere gogorarazi zigun, ereduak, edukiak, konparazio-terminoak, sailkapen-eskemak, balio-eskalak, edertasun-paradigmak emanez. Irakurketa orok uzten du arrasto bat, nahiz eta momentuan ez sentitu.

Irudimenari esker, mitoak eta istorioak asmatu ditugu; etzidamuko teknologia marraztu, eta izarretarainoko bidaiak amestu ditugu. Intuizio poetikoak zientziaren aurrerabidearen aitzindari izan dira. Kronika zehatzek atomoaren egitura trinkoa ulertzea garamatzate. “Literaturak, aintzinakoena den ahozkoak barne, ideiak sortzeko eta gure baitan sartzen diren eta gure espiritua eraldatzen duten ikuspegiak zizelkatzeko gaitasuna du, *guk nahi ala ez*”. Letra etzana gurea da; esaldia, Olga Tokarczukena.

Literaturak mundu guztiari irekita egon behar du, inolako balaztarik gabe. Sarbide unibertsala.

Literaturak esnatu eta astindu egiten gaituelako, gure gogoia piztu. Erregaia eta sua da. Bakarrik irakurtzen dugu, baina ez gaude bakarrik irakurtzen dugunean. Liburuan irekitzen zaizkigun garai eta pertsonaietara lotuta gaude, fikziozko pertsonaietan lur hartzen dugu, bidaiatik itzultzean ezaugarri berriak iradokitzeko. Izan ere, literatura da gizabanako eta gizarte gisa geure buruari zor diogun kontraesana eta ñabardura.

Irakurtzeak ez gaitu, akaso, pertsona hobeak egingo, baina munduaren zabaltasunaren eta aniztasunaren zantzuak utziko ditu irakurlearengan. Era berean, irakurritakoa lagunekin, ezagunekin, ikaskideekin, irakurketa taldeko kideekin edo sare sozialetan partekatzeak liburuak adina plazer edo gehiago emango digu: liburuei buruz hitz egitea liburuak berridazteko modu bat da. Eta literaturaren historia irakurketaren historia da; erreketak publikoetatik, zentsuratik eta gure gailu elektronikoen hots eta ardaitetik harago doa.

Ez gara asko izango, baina zenbakiak ez dira dena. Ondo artikulatutako ekosistema bat osatzen dugu: irakurleak, idazleak, itzultzaileak, editoreak, literatur kritikoak, liburu-saltzaileak, liburuzainak... Literaturak batzen gaitu. Horregatik sendotu eta prestigiatu nahi dugu sare hori, liburuaren balioa aldarrikatu. Literaturak erakusten diguna literatura irakurriz baino ezin delako ikasi. Literaturak denoi dagozkigun gauzez hitz egiten baitu: kemenaz, beldurraz, adiskidetasunaz, heriotzaz, maitasunaz, elkartasunaz.

Irakurtzen duenak badaki zergatik irakurtzen duen. Irakurtzen ez duten horietakoa bazara, zure arrazoiak izango dituzu.

Edozelan ere, zaude lasai. Literaturaz arduratzen ez bazara ere, literatura beti arduratuko da zutaz. Hori ere liburuei esker ikasi dugu.

*Meettok Fundazioak sustatutako literaturaren aldeko Manifestua.

Atxikimenduak:

katixa agirre, uxue alberdi, iñaki aldekoa, oihane amantegi, miren amuriza, beñat arginzoniz, txema arinas, miren arratibel, yolanda arrieta, mikel arruabarrena, garazi arrula, aintzane atela, gotzon barandiaran, maialen berasategi, jon bilbao, itxaro borda, harkaitz cano, angel erro, hedoi etxarte, José fernández de la sota, julen gabiria, aintzane galardi, aritz galarraga, oihana garmendia, jorge giménez bech, ekaitz goikoetxea, josu goikoetxea, aritz gorrotxategi, oier guillan, nerea ibarzabal, juan kruz igerabide, izaskun igoa, tere irastortza, jose anjel irigarai, karmele jaio, edorta jimenez, irati jimenez, felipe juaristi, jon kortazar, goiatz labandibar, hasier larretxea, iñigo larroque, santi leoné, anjel lertxundi, karlos linazasoro, pello lizarralde, nerea loiola, maite lopez las heras, elizabeth macklin, juanra madariaga, peru magdalena, juan ramon makuso, gerardo markuleta, miren agur meabe, antxiñe mendizabal, laura mintegi, inazio mujika iraola, kepa murua, elena olave, carlos ollo, pello otxoteko, aritz pardina, eider rodriguez, txani rodriguez, beñat sarasola, danele sarriugarte, asier serrano, mikel soto, castillo suarez, eli tolaretxipi, garbiñe ubeda, itziar ugarte, yurre ugarte, juan manuel uría, juan luis zabala, josu zabaleta, iban zaldua, patxi zubizarreta.